



OÑATIKO UDALA

idazkaritza@onati.eus
Telefonoa: 943 78 04 11
Fax: 943 78 30 69
20560 OÑATI

AKORDIO JAKINARAZPENA

NOTIFICACIÓN DE ACUERDO

IRTEERA-ERREGISTROA

Zkia.

Data

Udal Osoko Bilkurak 2022ko otsailaren 24ean egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

13.- Kirol elkarte eta taldeentzako diru-laguntzen oinarriak eta 2022. urteko deialdia onartzea, kirol Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko otsailaren 18an.

Gaia: Kirol elkarte eta taldeentzako diru-laguntzen oinarriak eta 2022. urteko deialdia onartzea.

2022ko otsailaren 18an egindako Kirol batzordearen akta, Oskar Carrascal Gonzalez (Kirol Batzordeko idazkaria eta Kirol Teknikaria eta Zubikoa kiroldegiko zuzendaria) sinatua. Honela dio:

“Kirol elkarte eta taldeentzako dirulaguntzen oinarriak eta 2022. urteko deialdia onartzea.

Udal kirol batzorde informatiboak onartu ditu Oñatiko herrian kirola sustatu eta ohiz kanpoko kirol ekintzak antolatzeke diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarrietako ordenantza erregulatzaila, eta 2022. urterako deialdia

Aipaturiko ordenantza oinarri hartuta herriko kirol batzordeak onartu du:

Lehenengoa: Onartzea

“Oñatiko herrian kirola sustatu eta ohiz kanpoko kirol ekintzak antolatzeke diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarrietako ordenantza erregulatzaila”

1. Oñatiko udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako dirulaguntzak ematea.

2.- Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeke dirulaguntzak ematea

Bigarrena: Finantziazioa.

2.1 .- Oñatiko udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzak diruz laguntzeko:

2022ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira hiru mila euroko (3.000) gastua baimentzen da, 1.0700.481.341.0004.2022-283 Herriko Taldeen Kirol Ekintzen Antolaketa ” kontu sailaren kargura.

2.2.- Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak diruz laguntzeko:

2021rako hamabost mila eta zortziehun euroko (15.800) gastua baimentzen da, 1.0700.481.341.0004.2022-283 Herriko Taldeen Kirol Ekintzen Antolaketa kontu sailaren kontura.

Hirugarrena: Onartzea ondoren aipatzen den dirulaguntzen 2022ko deialdia.

1. Oñatiko udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako dirulaguntzak ematea.

2.- Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeke dirulaguntzak ematea

Laugarrena: 2022ko eskaerak aurkezteke epea.

- Hilabete, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita.”

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (22.2 a eta 28 artikulua) eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta

Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (14. Artikuluak) ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoa da artikulua hauek:

-8.3 artikulua: "Lege honetan aipatzen diren diru-laguntzen kudeaketa printzipio hauen arabera egingo da:

A) Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

B) Administrazio emaileak ezarritako helburuak eraginkortasunez betetzea.

C) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasuna."

-30.2 artikulua: "Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira."

-34.3 artikulua: "Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da."

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere **3. Artikuluan 1 eta 2** ataletan honakoa xedatzen du:

"1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela."

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Gaia azterturik, eta Kirol batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa: Oñatiko herrian kirola sustatu eta ohiz kanpoko kirol ekintzak antolatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarrietako ordenantza erregulatzailerik hauek onartzea:

1. Oñatiko udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako diru-laguntzak ematea.

2.- Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak ematea.

Bigarrena: Finantziazioa.

2.1 .- Oñatiko udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzak diruz laguntzeko:

2022ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira hiru mila euroko (3.000) gastua baimentzen da, 1.0700.481.341.0004.2022-283 Herriko Taldeen Kirol Ekintzen Antolaketa " kontu sailaren eta bere lotespen mailaren kontura.

2.2.- Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak diruz laguntzeko:
2022rako hamabost mila eta zortziehun euroko (15.800) gastua baimentzen da,
1.0700.481.341.0004.2022-283 Herriko Taldeen Kirol Ekintzen Antolaketa kontu
sailaren eta bere lotespen mailaren kontura.

Hirugarrena: Onartzea ondoren aipatzen den diru-laguntzen 2022ko deialdia.

1. Oñatiko udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako diru-laguntzak ematea.
- 2.- Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak ematea

Laugarrena.- Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea erabakitzea.

Bostgarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta kirol teknikariari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta Kirol Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

Oñatin, 2022eko martxoaren 7an

Idazkariak



INPUGNAKETA-BIDEAK

Honen berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako. Bide batez, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko **AUZI-ERREKURTSOA** aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, Donostian, **BI HILABETEKO EPEAN**, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1.998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, **nahi izanez gero**, aurreko idazatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, **BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari **HILABETEKO EPEAN** jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsok aurkezteari kalterik egin gabe.

MEDIOS DE IMPUGNACION

Lo que se le/s notifica a Vd/s. a los efectos procedentes, significándole/s que, contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá/n Vd/s. interponer en el plazo de **DOS MESES**, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, **RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO** ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo con sede en Donostia-San Sebastián, a tenor de lo establecido en los art. 8 y 46 de la Ley 29/1.998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el art. 114.c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, **con carácter potestativo**, y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer **RECURSO DE REPOSICIÓN**, ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de **UN MES** que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 123, 124 y concordantes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare/n oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.